

## URTE BETEKO LANPOSTUAK (COS) EPAITEGIETARA

### HEZIKETA BEREZIAN LANPOSTUEN ZERRENDA ERREAL BAT IZATETIK OSO HURRUN.

Gure kolektiboan aski ezaguna da eta urtez urte pairatzen dugu %63ko behin behinekotasun tasa jasangaitzaren ondorioak.

2007tik oposaketa prozesurik ez da egon eta azken urteetan administrazioak RPTan lanpostu batzuk sartu dituen arren, ez da nahikoa izan anabasa konpontzeko. COS kontratu guztiak iruzurrean daude eta horiek RPTan sartzea eskatu dugu gerora oposaketa bidez egonkortsu ahal izateko.

LABetik argi dugu behin-behinekotasun tasa jaisteko aurrerapausoak eman behar dituela Administrazioak, berak sortu duen salbuespenezko egoera hau konpontzeko. Beraz, LABek Lanpostuen zerrendak handitu eta lanpostuen kontsolidazio prozesua martxan jartzea eskatu du. Azken urteetan Lanpostu Zerrenden eguneraketa faltsuak egin ditu administrazioak, %38a diren COS (urte betekoak) kontratuak ez ditu sartu. Iruzur hau dela eta, lanpostu hauek betetzen dituzten langileak ez dira egonkortzen.

- **Negoiazio kolektiboaren bidez hurrengo LEP prozesurako egun dauden bakante guztiak eskaintzea eskatuko dugu.** Administrazioak adierazitakoaren arabera aurrekontuen legearen arabera onartuko ditu edo ez. Gainera estrukturalak diren COS guztiak ere gehitzea eskatuko dugu.

Gauzak horrela, LAB ez da zain egongo eta gainontzeko langile publikoekin batera gure indar posizioa erakutsi genuen apirilaren 22an burutu genuen greban, ekainaren 1ean lan zentroetan argazkiak atera eta ekainaren 5ean manifestazioetan parte hartuko dugu kontsolidazio prozesuak eskatuz.

- **Bide Judiziala ere zabalduko dugu.** Negoiazio kolektiboaren bidea agortuta epaitegietara joko dugu. Europako sententziek ez dutenez jurisprudentziarik sortu banan banakako erreklamazioak sartuko ditugu COS kontratuen iruzurra salatzeke. Sententzia bidez ebatsitako mugagabe ez finko lanpostuak lortzen baditugu, hauek Lanpostuen Zerrendan gehitzea ekarriko luke, eta etorkizunean lanpostu hauek LEP prozesura bideratuko lirateke.

Horregatik, LABkide zareten eta COS kontratua duzuen horiekin harremanetan jarriko gara ondorengo egunetan.

LABkide izan gabe ere COS kontratu bat baldin badaukazu eta epaitegietan hau salatu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan.